

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA

FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

KULTURARTEKOTASUNA: IRAKASLE ETA IRAKASLEGAIEN PERTZEPZIOA ETA FORMAKUNTZA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Gorrotxategi Sánchez, Miren.

ZUZENDARIA: Cortabarría Cortazar, Lorea.

2019-2020

LABURPENA

Gure gizartean ematen ari den globalizazioaren eraginez hainbat populazio mugimendu eman dira eta horrek hizkuntza, tradizio eta kultura anitzeko gizartea ekarri du. Kultur-aniztasun handi hau kudeatzea gure gizartearen erronketako bat da eta zeregin horren barruan hezkuntza sisteman kudeatzeko beharra ikusten da. Zeregin hau burutzeko filosofiarik eraginkorrena kulturartekotasunak ematen duen ikuspegia da, hau da, eskolan ematen diren kultur ezberdinen artean komunikazioa, elkar-trukea eta bizikidetzaren oinarri dituen, beti balioen inguruko ikuspegi kritikoa bultzatuz eta besteen kulturarekiko errespetuzko jarrerak erakutsiz. Ikerketa lan honetan profesionalek kultur-aniztasun honen inguruan duten pertzepzioa eta horren kudeaketan kulturartekotasuna ikasgelara eramateko eskuratu duten formakuntza mota eta haren egokitasuna aztertu da. Horretarako, COVID-19ak sortutako pandemia egoeran egonik, ikastetxeetan bertatik bertara lana egin ezinik baliabide informatikoen bitartez egitea moldatu behar izan da lan metodologia. Horrela, galdetegi bana prestatu da bat irakaskuntzan jarduten duten profesionalei zuzenduta eta bestea etorkizuneko irakasleak izango diren ikasleei zuzenduta.

AURKIBIDEA

Sarrera eta justifikazioa	1
Marko teorikoa.....	2
a. Kulturantzatasuna eta kulturartekotasuna ezberdintzen	2
b. Kulturaren definizioa.....	3
c. Hezkuntza inklusiboa eta kulturartekotasuna.....	4
d. Hezkuntza inklusiboa guztientzako hezkuntza gisa	6
e. Kulturarteko hezkuntza.....	7
Helburuak	11
Esparru praktikoa: Metodoa.....	12
a. Parte-hartzaileak	12
b. Erabilitako tresnak.....	12
c. Prozedura	13
d. Datuen analisisa	13
Emaitzak.....	14
a. Irakasleen emaitzak	14
b. Ikasle eta irakasleen konparazioa	22
Ondorioak.....	29
• Etorkizuneko ikerketa lerroak	35
Ikerketako ahulguneak eta zailtasunak.....	36
Erreferentziak	37
Eranskinak.....	38
• I. Eranskina: Irakasleen galdetegia.....	38
• II. Eranskina: Ikasleen galdetegia.....	41

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gaur egungo gizartea gero eta aldaketa gehiago jasotzen dituen gizartea dela ukaezina da. Izan ere, aurrerapen teknologikoek eta globalizazio ekonomikoaren eraginez ematen ari diren populazio mugimenduek gure gizartea hizkuntza, tradizio, kultura eta kolore anitzeko prisma bihurtu dute. Aldi berean, egoera honek kultura ezberdinen arteko loturak areagotu ditu eta horrek tolerantzia eta malgutasuna eskatzen du, egoera berriak ulertu eta horietara egokitzeko. Ildo horretatik, kulturarteko-hezkuntzak garrantzi handia hartzen du, aniztasunaren balorazio positiboa eta pertsonetikiko errespetua dakarrelako.

Beraz, kulturartekotasunaren korronea ezagutzea eta praktikan jartzeko gaitasuna izatea beharrezkoa da XXI. mendeko gizarteari behar bezala erantzuteko. Izan ere, kulturartekotasunak hainbat ekarpen, balio eta ezagutza eskuratzeko aukera ematen digu. Gainera, hezkuntza ulertzeko ikuspegi honek pertsona guztien aukera berdintasuna bermatzen du, haien egoera sozial, pertsonal edota kulturala zeinahi den ere.

Aniztasun hau Europako herrialdeetan eman den bezala, Euskal Herriko errealitatea ere bilakatu da. Hori dela eta, garrantzi handia eman behar zaio gaur egungo irakasleagoak gai honekiko duen formakuntza eta ezagutzari. Hau da, zer egin da hezkuntzan kulturartekotasunaren inguruan? Gaur egungo irakasleak prest al daude errealitate honi erantzuteko? Eta etorkizuneko irakasleak? Praktikan jartzen da ? Galdera guzti hauei erantzuna aurkitzeko helburuarekin erabaki da gai hau jorratzea, berebiziko garrantzia duelako. Horretarako, irakasle eta ikasle lagin bati egindako inkesten emaitzetan oinarritu da ikerketa.

Gainera, nire etorkizun hurbileko lanbidean gai honekiko ahalik eta formakuntza eta ezagutza sakonena edukitzea gustatuko litzaidake eta lan hau garatzeak informazio orokor hori eskuratzeko aukera eman diezadakeela deritzot. Izan ere, askotan kulturartekotasuna lantzeko helburua daukagunean, aurreiritzietan eta estereotipoetan jausten gara, kulturartekotasunaren aurkako bidea eginez. Eskolak eta irakasleak umeengan eta hauen hezkuntza-prozesuan eragin handia duten eragileak dira eta beraz, profesionalen formakuntza ezinbestekoa da.

Beraz, lan honen bitartez bai egungo irakasleek baita etorkizuneko irakasleek ere gai honekiko duten ezagutza eta formazioaren inguruko informazioa eskaintzea da nire helburua. Horretarako, egindako galdetegietatik aterako informazioa oinarrituko naiz eta eskuratutako informazio horren inguruan ateratako ondorioetan sakonduko dut.

MARKO TEORIKOA

Gero eta aniztasun-kultural handiagoa duen gizarte batean bizitzeak hezkuntza ulertzeko beste modu batera eraman gaitu; kulturartekotasunean oinarritutako hezkuntzara, hain zuzen ere. Izan ere, gero eta ikasle inmigrante gehiago dituzten ikasgelak dauzkagu eta ikasle horien errealitateari erantzuteko gai izan behar da hezkuntza. Dena den, argi izan behar dugu kulturarteko-hezkuntza ez dela soilik ikasle inmigrante asko dauden ikastetxeetan bultzatu behar, ikasle autoktonoekin egin beharreko lanketa ere baita. Kontuan izan behar dugu egungo aniztasun kulturala ez dela fenomeno berria, beti egon da. Baina historian zehar aniztasun horretara egokitzeko eta aniztasun hori ulertzeko modu desberdinak garatu dira. Gizarte eta herrialde bakar bat ere ez da guztiz homogeen edo monokulturala, gizarte baten barruan eta beste gizarte-talde batzuekiko harremanetan, aniztasuna eta heterogenotasuna beti agertzen baitira (Beltrán, 2016).

Kulturarteko hezkuntza ulertzeko eta sustatzeko, ezinbestekoa da kontzeptu ezberdinak menperatzea eta ondo ulertzea, kulturartekotasunarekin harreman zuzena duten kontzeptuak, hain zuzen ere, hala nola; kulturartekotasuna, kulturantzitasuna, kultura, pluralismo kulturala, hezkuntza inklusiboa, asimilazionismoa eta beste batzuk.

a) Kulturantzitasuna eta kulturartekotasuna ezberdintzen

Kulturartekotasunaren kontzeptua ez da norabide bakarreko kontzeptua; aitzitik, egoera eta jarrera desberdinak adierazten ditu, eraikitze, garatzeko eta emaitzak lortzeko aukeren aurrean. Askotan, kulturantzitasuna eta kulturartekotasuna nahasten dira, oso kontzeptu ezberdinak direla ahaztuz (Comboni Salinas eta Juárez Núñez, 2019).

Kulturantzitasunari dagokionez, gizarte baten kultura-aniztasuna agertzeko modu bat da, eta espazio sozio-geografiko berean kultura ezberdinetako giza taldeak egoteari egiten dio erreferentzia. Kulturantzitasunak existentziaz soilik hitz egiten du, hau da, giza taldeen artean ez da bizikidetzarik edota integrazio egoerarik ematen. Kasu honetan, giza-talde ezberdinen arteko trukerik ez da ematen, segregazio egoerak areagotu eta elkarbizitzari uko egiten zaio. Kontzeptu estatikoa da eta espazio sozio-geografikoan aurkitzen diren gutxiengo kulturekiko jarrera paternalista erakusten du (Bernabé Villodre, 2012).

Laburbilduz, kulturantzitasunak eremu fisiko batean kultura ezberdinen aldiberekotasuna suposatzen du, baina, gizarte mailan ez da haien arteko integrazioa ematen. Beraz, kulturantzitasunak ez dakar aberastasun kultural edo pertsonalik kulturen arteko kontaktu sozialik ez dakarrelako (Bernabé Villodre, 2012).

Kulturartekotasunak kultura ezberdinetako pertsonen arteko elkarrizketa eta komunikazio etengabea suposatzen du. Kulturen arteko elkarrizketa hau norberaren kulturaren ikuspegi kritiko batetik abiatzen da, beste kulturekiko aurreiritziak eta estereotipoak ezabatuz. Modu honetan, kultura batzuk beste batzuk baino hobekak direnaren pentsamoldea aldatu egiten da, norberaren garapenerako mehatxu diren kulturak daudela dioen ideia desagerraraziz eta gure kulturako balioak bakarrak ez direla onartuz (Galindo Morales, 2005).

Askotariko kulturen arteko harremanak, negoziatorako eta lankidetzarako baliabide gisa ulertu behar ditugu, eta ez konfrontatorako eta inposaketarako baliabide gisa; kulturartekotasunak kultura ezberdinen arteko trukearen eta komunikazioaren garrantzia azpimarratzen du (Aguado 2003 Galindo Morales-ek aipatua). Baina, kulturartekotasunaren ikuspegia bizitzako termino orokorretan edo eremu jakin batean aplikatzeko hezkuntzan eta eskolan, adibidez, pluralismo kulturalaren kontzeptua ezagutzea ezinbestekoa da. Pluralismo kulturalak, aniztasuna positiboa eta aberasgarria dela abiapuntutzat hartzen du eta aniztasun hori ukatu ordez, errespetatu, aprobetxatu eta baloratu egin behar dela defendatzen du: "desberdintasunaren ospakizuna" aldarrikatuz (Giménez Romero, 2003).

Beraz, kulturartekotasunak espazio sozio-geografiko berdinean elkarrekin bizi diren kulturen arteko bizikidetzeta eta komunikazioa praktikatzen duen jarrera da, kultura nagusiaren parte ez diren kulturekiko errespetua abiapuntutzat hartuz eta gutxiespenezko jarrera partenalistak eta biktimistak baztertuz. Kulturartekotasunak kultura-aniztasunaren ikuspegi dinamikoa eskatzen du, elkarrizketa eta interakzioa aldaketaren eragile bihurtuz (Galindo Morales, 2005). Kulturartekotasuna berdintasunean oinarritutako gizarte eta hezkuntza lortzeko egin behar dugun bidea da; arrazakeriaren, diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako irtenbide onena baita.

b) Kulturaren definizioa

Gai hau sakontasunez jorratzeko, kultura kontzeptua ondo menperatzea ezinbestekoa da. Kultura giza komunitate baten izaeraren emaitza da, hau da, kulturak giza talde baten sorkuntzak, sinesmenak, balioak eta ohiturak biltzen ditu; haiek errealitateari zentzua ematea ahalbidetzen diguten esanahi partekatuak dira eta gure interesak eta mundua ikusteko modua barnebiltzen dute (Galindo Morales, 2005).

Kulturaren kontzeptuari dagokionez, badaude garrantzi handiko ezaugarri batzuk hezkuntza arloarekin harreman zuzen dutenak eta kontuan hartu beharrekoak (Malgesini eta Giménez 1997 Galindo Moralesek 2005, aipatua) :

- Kultura sozializazio-prozesuaren bidez ikasten da, gizabanako bakoitzak garatzen den ingurunearekin duen harremanaren bidez, hain zuzen ere.
- Kulturak ezin dira liburuetan agertzen den informazioan soilik oinarritu, bizipen errealak entzutea beharrezkoa da.
- Kulturak dinamikoak dira eta ingurunean ematen diren aldaketa eta eraldaketetara egokitzen dira.
- Kulturak errealitateri zentzua eta esanahia ematen dio, izan ere, errealitate hori ulertzeko eta ikusteko modua baldintzatzen du.
- Kultura osotasunean ulertu behar da, bere osagarrietako bakoitza besteekin harremanean hartzen baitu zentzua. Osagarri horietako batzuk oso erraz antzeman daitezke (folklore, musika, literatura...) eta beste batzuk, ordea, antzemateko zailagoak dira (sentimenduak, sinesmenak, ikusmoldeak...).
- Kultura bat eta berau garatzen den gizarte-ingurua banaezinak dira.
- Guztiok esparru kultural baten parte garen arren, subjektu bakoitzak bere kulturaren ikuspegi zehatza du. Zentzu honetan kultura gure izaerarekin batera doa, gure ekintza guztietan eragina dauka eta ezin dugu alde batera utzi.

c) Hezkuntza inklusiboa eta kulturartekotasuna

Kulturartekotasun hezkuntzak eta hezkuntza inklusiboak lotura estua dutela esan dezakegu, izan ere, kulturarteko hezkuntza da hezkuntza inklusiboa lortzeko biderik aproposena. Kulturarteko hezkuntzak eta hezkuntza inklusiboak hainbat helburu partekatzen dituzte, ikasle guztiak hartzeko hainbat bide eta aukera proposatuz eta kalitatezko hezkuntza bermatuz. Bi ikusmolde hauek partekatzen dituzten helburuek eta loturek gidatu behar dute gure hezkuntza-praktika (Arroyo González, 2013).

Ezberdintasunak aberasgarriak direla abiapuntutzat hartuz, eskolak ikasleak inguru aldakor eta aniztasun handikoetan murgiltzeko, jarduteko eta elkar-bizitzeko prestatu behar ditu. Aniztasuna gure giza izaeraren ezaugarri bereizgarrietako bat da, ondorioz, gure gizarteena ere eta eskolak, erakunde eta gizartearen isla den aldetik, aniztasun horri modu egokian erantzuteko gai izan behar du (Arroyo González, 2013).

Aniztasuna aberasgarritzat ulertzen bada, hau tratatzeko modurik egokiena hezkuntza inklusiboa izango da, aniztasun eta ezberdintasun horiek gela barruan ager daitezten. Inklusioaren kontzeptua oztopoak identifikatzea eta ezabatzea helburu gisa duen prozesua da; ikasle guztien presentzia, parte-hartzea eta arrakasta lehenetsiz. Horrez gain, arreta berezia jartzen du baztertuta, marjinetuta edo errendimendu baxua izateko arriskua dutenengan (Azorín Abellán eta Sandoval Mena, 2019). Askotan, ordea, eskolan ematen diren ezberdintasunek bazterketa eta segregazioa justifikatzeko aitzakia bihurtzen dira, bereziki, beste kultura bat dutenentzat. Baina, eskola gizarte-desberdintasunak erreproduzitzeko eta legitimatzeko erakunde nagusia izan daitekeen ere berean, gizarte-aldaketarako eragile nagusia ere izan daiteke (Murillo eta Hernández, 2011 Azorín Abellán eta Sandoval Mena, 2019 aipatua). Egungo gizartean aurkitzen dugun aniztasuna ez da beste herrialde batzuetako haurren etorrerarekin sortu, askok uste duten bezala, aniztasuna gizartean betidanik egon baita. Gizarteari eta eskolari aldaketarako egiten zaien deia ez da soilik herrialde ezberdinetako ikasleen etorreragatik egiten, bizi dugun aldaketa globalagatik baizik; egoera honen ondorioz irakaskuntza- eta ikaskuntza prozesuaren planteamenduak berrikusi behar dira gizarte premia berriei behar bezala erantzuteko. Horrelako egoerari erantzuteko, kulturarteko hezkuntzaren proposamena egiten da, gure eskoletan dauden haur guztien hezkuntza eta gizarte inklusioa bermatzeko (Arroyo González, 2013).

Tutsek (2007) adierazten duen bezala, arazoa kulturarteko hezkuntza ikasle etorkinen etorrerarekin harremanatzea da;

“La educación intercultural se confunde, demasiadas veces, con la atención al alumnado inmigrante y la lengua vehicular se impone como factor de integración, olvidando su necesaria transformación en lengua vincular de comunicación. El respeto a la diferencia raya a menudo en el fomento del relativismo cultural, mientras que la convivencia es vista como una situación utópica. En cuanto a la cohesión social, ésta se confunde a menudo con la homogeneidad, el monolingüismo o el monoculturalismo. Por tanto, parece que la diversidad cultural y lingüística tiende a desconcertar y provocar recelo” (Tuts 2007, 34or).

Aurretik aipatu dugun bezala, aniztasun-kulturala (hizkuntza ezberdinak, ohitura ezberdinak...) gure gizarteko errealitate dira. Aniztasun horrek batzuetan aberasgarri suertatzen dira, eta beste batzuetan, ordea, kaltegarri. Kaltegarri suertatu daitezkeela diogunean esan nahi duguna da batzuetan ezberdintasun horiek gizarte-ondasunetan parte hartzeko eta identitatea garatzeko aukerak murrizten dituztela, eta beraz, aniztasun horrek desberdintasun egoerak sortzen ditu. Askotan, eskolak desberdintasun egoera horiek biderkatzen ditu eta hori saihesteko bideari ekin behar diogu. Eskolak aniztasuna sustatu

behar duen arren, desberdintasun egoerak sortzen dituen aniztasunari uko egin behar dio, berdintasun-printzipioei helduz (Arroyo González, 2013). Carbonell-ek (2002) dioen bezala praktika hau ondorengo honetan oinarritu behar da: gizakiok, berdinetik askoz gehiago dugula desberdinetik baino.

d) Hezkuntza inklusiboa guztiontzako hezkuntza gisa

Inklusio terminoa, hasieran ikasle zehatz batzuen hezkuntza-premia bereziekin oso lotuta zegoen arren, ondoren, hezkuntza orokorrera pasatu zen, eskola haur guztientzat izan behar duen ideia sustatuz. Hezkuntza inklusiboak egiten duen proposamena aniztasuna balio erantsi gisa ulertzen duen eskolan haur guztiek ikas dezaketela da (Stainback eta Stainback, 1999).

Hezitzaile garen aldetik, kontuan izan behar dugu ikasle batzuek oztopoak izan ahal dituztela hezkuntzan aurrera egiteko (talde soziokultural jakin batekoak izateagatik edota erabiltzen den hizkuntza ez ezagutzeagatik...). Hori dela eta, ezinbestekoa da hezkuntza-politikak garatzea, atzerriko haurren eskolatzea ez ezik, kalitatean eta ekitatean oinarritutako hezkuntza eskainiz.

Baina hezkuntza inklusiboaz hitz egiteko esparru kontzeptual bat planteatzeaz gain, praktikan eta hezkuntza-metodologietan ere zenbait aldaketa egitea beharrezkoa da. Horregatik, oso garrantzitsua da hezkuntza-inklusiboa bultzatzeko erabiliko diren espazioen ezaugarriak zehaztea. Ezaugarri horien artean, besteak beste, hauek aipatu daitezke (López Melero, 2004; Stainback eta Stainback, 1999) :

- Ikasleen aniztasuna ez da arazo bat, onura baizik. Ez dakar batzuen edo besteen nagusitasuna edo gutxiagotasuna.
- Ikasgela ikaskuntzarako eta elkarbizitzarako komunitate gisa ulertzen da, non ikasleek guztiek ikas dezaketela uste den, bakoitzaren erritmo eta estiloak errespetatuz.
- Ikaskuntza autonomoa eta "ikasten ikasteko" konpetentziak garatzen lagunduko duten estrategiak bilatzen dira.
- Ikasle guztiek talde baten kide dira eta eguneroko bizitzan talde horrengandik ikas dezakete.
- Taldeko kide bakoitzaren eskubideekiko errespetua bultzatu behar da.
- Gela barruan espezialisten esku-hartzea gomendagarria da:

- Izaera naturaleko sendotze sareak bultzatzea, hala nola, berdinen arteko tutoretza lana.
 - Ikaskuntzaren eta elkarrekiko laguntzaren ardura taldeko kideei utzi behar zaie; irakasleak ikasgelaren erabateko kontrola duenaren ideia alde batera utziz.
 - Norbanakoen arteko ezberdintasunen ulermena eta onarpena eragitea.
- Malgutasunak jarduera guztien ardatza izan behar du. Ez dago giro eta une guztietan sortutako arazoei eman daitekeen erantzun sinple eta unibertsalik.

Aurretik aipatutakoa kontuan hartuz, inklusioa prozesu irekia eta dinamikoa da, aniztasunari erantzuna bilatzen diona. Horretarako, komunitateko kide guztien parte hartzea beharrezkoa da, modu horretan soilik lortuko baita ikastetxearen eta haren praktika pedagogikoen aldaketa (Arroyo González, 2013).

e) Kulturarteko Hezkuntza

Kulturen arteko hezkuntza guztiontzako hezkuntza da, eta ez soilik gutxiengoentzat edo etorkinentzat. Bere helburua gizarte demokratikoen berezko kultura-aniztasunari erantzuna ematea da, kultura-aniztasuna errespetatzen eta baloratzen duten premisetatik abiatuta, eta aniztasun hori egungo gizartearen errealitate, aberastasun eta hezkuntza-baliabide bezala ulertuz (Arroyo González, 2013).

Kulturarteko hezkuntza aldagai kulturak onartzeko eta baloratzeko prozesuko azken urratasa da, alternatiba asimilazionistetatik haratago doana eta ondorengo hezkuntza formulazioekin lotura estua duena; hezkuntza globala, arrazakeriaren aurkako hezkuntza edo hezkuntza inklusiboarekin. Besalú-k (2002) kulturarteko-hezkuntzari buruz egiten digun definizioetako bat honako hau da:

“La educación intercultural es fundamentalmente una actitud y un comportamiento relativo al tipo de relaciones que se dan entre las culturas particularmente que conviven en un ambiente determinado. Se propone atender las necesidades afectivas, cognitivas, sociales y culturales de los individuos y de los grupos posibilitando que cada cultura exprese su solución a los problemas comunes. Es un medio para promover la comunicación entre las personas y para favorecer las actitudes de apertura en un plano de igualdad. No se dirige, pues, sólo a las minorías étnicas o culturales, sino que es una educación para todos. La educación

intercultural es una educación para y en la diversidad cultural y no una educación para los culturalmente diferentes." (Besalú 2002, 71or).

Kulturarteko-hezkuntza jardunerako oinarrizko helburuak (Arroyo González, 2013) :

- Hezkuntza-erreforma da lortu beharreko azkenengo helburua, talde ezberdinetako ikasleek hezkuntza ekitatiboa eta aukera-berdintasuna esperimintatzeko aukera izan dezaten.
- Hezkuntza-sisteman egiten diren aldaketek curriculumean ez ezik, prozesuaren dimentsio guztietan ere egin behar dira: irakasleen jarrerak eta prestakuntza, irakaskuntza-estrategiak, taldekatzeak eta ebaluazioak, ikastetxearen xedeak eta arauak...
- Edukien integrazioa eta ezagutza eraikitzeko prozesua kontuan hartu behar dira.
- Jasotako hezkuntzak, hezkuntzara iristeko aukera-berdintasuna ez ezik, esperientzia eraginkorren berdintasuna ere bermatu behar du.
- Arrazakeria eta diskriminazioa gainditzeak ikasleen eta irakasleen arrazakeriako jarrerak aztertzea eskatzen du. Jarrera eta balio demokratikoak garatzea da helburua, askotariko ingurune soziokulturaletan moldatzeko behar den gaitasuna garatuz.

Azken finean, kulturartekotasuna, hezkuntza-proposamen gisa, pertsona eta taldeen arteko hartu-emanei lotuta dago, hauen arteko komunikazioa eta trukaketa sustatuz.

Kulturarteko-hezkuntzaren printzipioak

Galindo Morales-en (2005) testuak aipatzen duen legez, Muñoz Sedanok (1993), Goenecheak (2005) eta Besalúk eta Vilarenek (2007) kulturartekotasunerako-hezkuntzaren printzipioen artean hauek aipatzen dituzte:

- Kultura-aniztasuna onartzeak eta baloratzeak eta horren arabera inor ez etiketatzeak taldean eman daitekeen segregazioa saihestea dakar.
- Beste printzipioetako bat berdintasunaren defentsa da, eta horrek ikasle guztiek berez ekartzen dituzten desberdintasunak modu kritikoan aztertzea dakar.
- Arrazismoaren, diskriminazioaren, aurreiritzien eta estereotipoen aurkako jarrera erakustea, kultura-aniztasunak dakarren aberasgarritasunean trebatuz.

- Gatazka elkarbizitzarako elementu positibo gisa ikustea, baldin eta gatazkari aurre egiteko eta konpontzeko saiakera egiten bada.
- Inplikaturako profesionalen kultura osatzen duten ezaugarrien ezagutzaz ohartaraztea, eta hori kritikoki aztertzea.
- Kulturarteko-hezkuntzak ikasle guztien autokontzeptu pertsonala, soziala, kulturala eta akademikoa hobetzen du; hau ezinbesteko betekizuna da eta erabateko onarpena eskatzen du.
- Kulturarteko hezkuntzak ikasle guztien gaitasunei eta aukerei dagokienez itxaropen positiboak ditu.
- Ikasle bakoitzak behar duen hezkuntza berezia jasotzeko duen eskubide pertsonala aitortzen du, bere nortasunaren formazioa bereziki zainduz.
- Ikasle guztien beharrak, esperientziak, ezagutzak eta interesak hartzen ditu kontuan eta eskolan aniztasuna txertatzeko modurik onena da.
- Irakaskuntza-metodologia kooperatiboak, baliabide didaktiko egokiak eta ikasle guztien arteko komunikazio aktiboa sustatzen ditu.
- Gehiago eta hobeto ikasteko estrategia didaktikoak planifikatzen ditu, haurren arteko harremana eta bizikidetzak hobetzeko balioko dutenak.
- Curriculumaren berrikuspena dakar, etnozentrismoa ezabatuz eta giza ezagutzaren erreferente unibertsalak bultzatuz, mendebaldeko kulturak sortutakoetara mugatu ordez.
- Eskolara mugatzen ez diren aldaketa sakonak eskatzen ditu eta aniztasunarekin lan egiteko prestatutako irakasleak behar dira.

Kulturarteko-hezkuntza kontzeptuak ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatu nahi duten hezkuntza-proposamenekin lotura estua du, hala nola; hezkuntza demokratikoa, hezkuntza inklusiboa edota balioetan oinarritutako hezkuntza. Besalú-k (2002) esaten duen bezala:

“No se trata de inventar nada, sino de recrear la mejor tradición pedagógica, aquella que siempre ha tenido claro que para educar a las personas hay que conocerlas, respetarlas y acogerlas en la diversidad. La Educación Intercultural no es más que educación de calidad para todos” (Besalú, 2002, 242or).

Kulturen arteko hezkuntzak haur guztiek hezkuntza-esperientziaz gozatzea bermatzen du, norberaren eta besteen ezberdintasunak errespetatuz. Hezkuntza honen helburuen artean, ondorengoak aipatu daitezke:

- Norberarenak ez diren kulturak errespetatzeko jarrerak lantzea.
- Ikasleen autokontzeptu pertsonala, kulturala eta akademikoa hobetzea.
- Kulturalki desberdinak diren ikasleen arteko bizikidetzeta eta lankidetzeta sustatzea.
- Ikasle guztiengan aukera akademikoen berdintasuna sustatzea.

Gauzak horrela, kulturartekotasunaren aldeko ikuspegia erakutsi beharra dugu. Aurretik esan bezala, hau ikuspegi berriena da eta kultura kontzeptu dinamiko eta aldakor gisa ulertzen du, arrazakeriaren aurkako ikuspegi integratzaile, inklusibo eta erreformatzailearen aldeko jarrera erakutsiz. Kulturalki bereizitako gizabanakoen eta taldeen arteko komunikazioa eta elkarrekintza sustatzea du helburu, tolerantzia eta errespetua oinarri bezala hartuz (Muñoz Sedano, 1993 Vilar Garcíak, 2009 aipatuta). Ikuspegi honen aldeko jarrera erakustekak ikuspegi asimilazionistaren aurka joatera behartzen gaitu. Azken ikuspegi honek kultura anitzeko hezkuntzaren kontzeptuari kulturaren interpretazio estatiko eta kontserbadore batetik heltzen baitio; akulturazio-prozesua erraztuz eta ikasle etorkina kultura nagusira moldatzera behartuz. Beraz, aniztasunarekiko kontrako jarrera da, aniztasuna elementu segregatzaile edo errepresibo gisa ulertzen baitu (Essomba, 1999, Vilar Garcíak, 2009 aipatuta).

HELBURUAK

- Gaur egungo irakaslegoak eta etorkizunekoak kulturartekotasuna nolakotzak ikusten duen aztertzea (handia, ertaina edo txikia).
- Egungo irakasleek eta etorkizunekoek aniztasunaren arrazoia zerekin harremanatzen duten aztertzea.
- Egungo irakasleek eta etorkizunekoek aniztasuna tresna baliagarritzat edo oztopotzat ulertzen duten aztertzea.
- Kulturartekotasunari erantzun egokia emateko jasotako formazioa eta formazio mota aztertzea.
- Egungo eta etorkizuneko irakasleen arteko konparaketa egitea eta gaur egun egon daitezkeen hutsune eta indarguneak etorkizunekoek betetzeko ematen diren baldintzak aztertzea.

ESPARRU PRAKTIKOA: METODOA. Egungo eta etorkizuneko irakasleek kulturartekotasunaren inguruan duten ezagutza aztertzen

Egindako ikerketa aurrera eramateko erabilitako metodologiari dagokionez, lau multzo nagusi azpimarratu ditzakegu.

a) Parte-hartzaileak

Lan hau bai egungo irakasleei baita etorkizuneko irakasleei zuzendutako bi galdetegietan oinarritako ikerketa da. Hasiera batean, galdetegiak Gasteizko lau eskoletako irakasleen artean zabalduko ziren; bi publiko eta bi itunpeko. Dena den, pandemiak sortutako egoeragatik eskolak itxi dira eta galdetegiak irakaskuntza arloko profesional anitzen artean zabaldu dira, baina ez eskola zehatz batzuetako irakasle talde osoari. Emaitzak, beraz, ikastetxe zehatz batzuei buruzkoa izan beharrean, zehaztu gabeko ikastetxe batzuetako profesionalei buruzkoa izango da. Honek duen abantaila ikuspegi orokorragoa eta ez ikastetxe batzuei mugatua dela da, nahiz eta ikastetxe zehatz batzuetako azterketa zehatza ez izan.

Egungo irakasleei dagokionez, guztira 50 erantzun jaso dira eta bai Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntza irakasleak dira. Gainera, tutoreen erantzunak jasotzeaz gain, hezkuntza bereziko irakasleen eta aholkularien erantzunak ere jaso dira. Etorkizuneko irakasleak, hau da, gaur egungo magisteritzako ikasleak, ikerketako parte-hartzaile ere izan dira. Horretarako, Euskal Herriko Magisteritzako Fakultateko ikasleei zabaldu zaie galdetegia eta guztira 35 ikasleen erantzunak jaso dira.

Beraz, lagina 85 pertsonen osatuta dago (75 emakume, 8 gizon eta 2 beste bat), parte-hartzaileen adin tartea 20-65 izanik. Parte-hartzaileen %58,8 gaur egun irakaskuntzan lanean dihardutenak dira eta beste %41,2 etorkizunean irakaskuntzan lanean arituko dira.

b) Erabilitako tresnak

Ikerketa egiteko erabili diren tresnak galdetegiak izan dira. Bi galdetegi ezberdin erabili dira; alde batetik, egungo irakasleei zuzendutako galdetegia (I. eranskina), eta bestetik, etorkizuneko ikasleei edo hezkuntza fakultateko ikasleei zuzendutakoa (II. eranskina). Bi galdetegiak egungo irakasleek zein etorkizunekoek kulturartekotasunaren inguruan duten ezagutza aztertzeko prestatuak izan dira. Egungo irakasleei eta etorkizuneko irakasleei zuzendutako galdetegiak ardatz biren inguruan egituratu dira; batetik, jakin nahi izan da zein den kultur-aniztasunaren aurrean duten jarrera eta pertzepzioa, eta bestetik,

kulturartekotasuna aurrera eramateko daukaten prestakuntza maila aztertzea. Bi galdetegi hauen alderaketaren bitartez, etorkizunean hezkuntza eremuan gerta litezkeen aldaketen aurreikuspen orokor bat izatea da helburuetako bat.

Galdetegiak, semi estrukturalak izan dira. Irakasleei egindako galdetegia 17 galderez osatutakoa izan da eta ikasleei egindakoa, ordea, 16 galderez osatutakoa. Irakasleen galdetegitik 15 galdera itxi egon dira eta beste bi galdera, ordea, irekiak. Ikasleen galdetegitik 14 galdera itxi eta bi ireki egon dira.

c) Prozedura

Prozedurari dagokionez, ikerketa burutzeko, aurretik esan bezala bi galdetegi prestatu dira; egungo irakasleei eta etorkizuneko ikasleei zuzenduak. Galdetegiak burutzeko, teorian jorratutakoa eta horren ondorioz ateratako helburuak oinarritzat hartu eta galderak eraiki dira. Galdetegietan, batez ere aukerazko galderak dira nagusi, datuen interpretazioa eta analisisa egiteko zehatzagoa delako. Dena den, garatzeko zenbait galdera ireki ere planteatu dira, galdera irekiek informazio zehatzagoa ematen dutelako eta erantzun aukeretan mugarik jartzen ez dutelako (Ruiz Bueno, 2009).

Galdetegiak hiru asteetan zehar zabaldu ziren eta horretarako informazio eta komunikazioarako baliabide teknologikoak erabili dira. Egungo irakasleen galdetegiak zabaltzeko hezkuntza sisteman aritzen diren profesional ezberdinekin kontaktuan jarri eta galdetegiak betetzeko link-a pasa zaie, era anonimo eta bolondresean bete zezaten.

Hezkuntza fakultateko ikasleentzako galdetegia ere hiru asteetan zehar zabaldu zen, baliabide informatikoen bitartez. Galdetegi hau zabaltzeko Gasteizko fakultateko ezagun ezberdinekin partekatu zen eta Lehen Hezkuntzako zein Haur Hezkuntzako Graduan aritzen diren hainbat ezagunen artean ere zabaldu zen.

d) Datuen analisisa

Datuak biltzeko, bi galdetegi prestatu dira, bata irakasleei zuzendua eta bestea egungo Magisteritzako ikasleei zuzendua. Jasotako erantzunen analisisa egiteko taula eta grafiko ezberdinak sortu dira (emaitzen atalean aurkitzen direnak). Galderen izaerak eta erantzuteko aukerek eragin zuzena eduki dute taula horiek diseinatzean. Batetik, zenbait galderen kasuan baiezkoen emaitzak hartu dira kontuan eta bai era kuantitatiboan zein kualitatiboan islatu dira tauletan; hau da, kopurua eta ehunekoa. Lortutako erantzunen ehunekoak eta datuak biltzeko Excel programa erabili da.

EMAITZAK


Emaizten atal honetan, lehenik eta behin, lanean dauden irakasleen erantzunak aztertuko dira: alde batetik, ikasleen kulturartekotasuna nolakotzat ikusten duten (aniztasun handi, ertaina edo txikia) aztertuko da. Bestalde, aniztasunaren arrazoiak atxikitzea zeri egiten dioten irakasleek ikusiko da. Ondoren aniztasuna baliagarritzat edo oztopotzat bizi duten behatuko da. Horrez gain, formakuntza jaso duten edo ez ikertuko da eta formakuntza jasotakoek irakaskuntzan hasi aurretik eta ondoren gauzatutako formakuntza zein izan den aztertuko da. Azkenik, irakaslearen pertzepzioa zein den behatze aldera, ia kulturartekotasunean formatua egotea garrantzitsutzat jotzen duten edo ez galdetu eta beraien erantzunak aztertuko dira.

Lanean diharduen irakasleak aztertu eta gero, etorkizunean irakasleak izango direnekin konparatzea erabaki da, gaur egun egon litezkeen hutsune eta indarguneak ikertu eta irtenbideak bilatze aldera.

a) Irakasleen emaitzak

Irakasleei egindako galdetegietatik ateratako emaitzak biltzeko grafiko eta taula ezberdinak erabili dira. Galdetegia adin ezberdinetako irakasleek erantzun dute eta datu hori adierazteko 1. sektore grafikoa daukagu. Kasu honetan, 45-65 urte bitarteko irakasleen erantzun gehiago jaso dira eta 35 eta 45 urte bitartekoen erantzun gutxiago, ordea.

1. Sektore grafikoa: Irakasleen adina




Galdetegia ikastetxe publikoetan zein itunpekoetan lanean aritzen diren Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako irakasleek bete dute. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan lanean aritzen diren irakasleen ehunekoak adierazteko 2. sektore grafikoa

daukagu, eta ikastetxe publiko eta itunpekoen ehunekoak adierazteko, ordea, 3. sektore grafikoa.

2. Sektore grafikoa: Hezkuntza etapa


3. Sektore grafikoa: Ikastetxeen sarea



Irakasleek emandako erantzunak eta datuak biltzeko taula ezberdinak ere sortu dira. Taula horietan interesgarriak izan daitezkeen galderen arteko konparazioak egin dira, faktore zehatz batzuetan oinarrituz eta horien artean ematen diren aldeak adieraziz.

Esan bezala, irakasleei egindako galdetegietan bai ikastetxe publikoetan zein itunpekoetan aritzen diren irakasleen erantzunak jaso dira. Interesgarria da sare publikoko eta sare itunpekoetako irakasleek haien ikastetxean aurkitzen duten aniztasun-kulturala nolakoa den zehaztea (handia, ertaina edo txikia). Bi faktore hauen azterketa egin ondoren (ikastetxeko sarea eta bertako aniztasun-kulturala) jasotako datuak ondorengo grafikoan (1.barra grafikoa) bildu dira:


1.Barra grafikoa: Ikastetxe sarearen arabera aniztasun-kulturala



Lehenengo barra grafikoaren arabera irakasleen %16,10ak, %61,30ak eta %22,60ak aniztasuna handia, ertaina eta txikia dela adierazten dute hurrenez hurren. Era berean itunpeko ikastetxeetako irakasleen artean %10,56ak, %78,96ak eta %10,52ak aniztasuna, hurrenez hurren, handia, ertaina eta txikia dela erantzuten dute.

Sare publikoan eta itunpekoan aritzen diren irakasleen parte-hartzea aprobetxatzeko asmoarekin sare ezberdinetan kultur-aniztasunaren arrazoiak zeintzuk diren ere aztertu da. Horretarako, publikoan aritzen diren irakasleek kultur-aniztasuna zerekin harremanatzen duten aztertu da eta itunpeko sarean aurkitzen diren irakasleekin berdina egin da. Aztertutakoa ondorengo 2. barra grafikoan aurkitu dezakegu:

2.Barra grafikoa: Aniztasunaren arrazoa ikastetxe sarearen arabera




Ikus ditzakegun datuen arabera (2.barra grafikoa), sare publikoan aritzen diren irakasleen erdiak (%51,61), aniztasun kulturala jatorriarekin harremanatzen du. %38,71ak, egoera ekonomikoarekin eta %9,68ak beste arrazoi batzuei egozten die aniztasun kulturala. Itunpeko sarean lanean aritzen direnen erantzunak behatzen badira, ordea, %36,84ak, aniztasun kulturala jatorriari egozten dio eta beste portzentai berberak (%36,84) arrazoi ekonomikoari. Baina, sare publikoko ikastetxeekin alderatuta, ia hirukoiztu egiten da (%26,32) aniztasun-kulturala beste arrazoi batzuekin harremanatzen duten irakasleen kopurua. Gainera, datu hauen bitartez behatu dezakegu sare publikoan ematen den aniztasun-kulturalaren arrazoi nagusia ikasleen jatorria dela (%51,61) irakasleen ustetan.

Aurretik aipatutakoaz gain, interesgarria da egungo irakaslegoaren ustez aniztasun-kulturalak zer suposatzen duen aztertzea (tresna baliagarria edo oztopoa). Horretarako, irakasleen esperientzia urteak hartu dira oinarritzat eta hiru talde ezberdinetan sakabanatu

dira; irakaskuntzan 5 urte baino gutxiago daramaten irakasleak, 5-15 urte bitartean daramatenak eta azkenik, 15 urte baino gehiago daramatenak. Lortutako datuak ondorengo 3. barra grafikoan adierazi dira:

3.Barra grafikoa: Aniztasun-kulturala tresna baliagarri edo oztopo



Galdetgia bete duten irakasle guztiak kontuan hartuz %84ak aniztasun-kulturala tresna baliagarritzat ulertzen duen arren, %16ak oztopotzat ulertzen du. 3.barra grafikoan agertzen den bezala, irakaskuntza arloan esperientzia urte gutxien (5 urte baino gutxiago) daramatzaten irakasleen %7,7ak uste du aniztasun kulturala oztopoa dela. Hau bat dator esperientzia urteek gorantz egiten dutenen erantzunekin, non 15 urtetik gorako eskarmentua dutenek aniztasunaren aurrean jarrera positiboagoa aurkezten duten (%82,10), 5-15 urteko eskarmentua dutenekin alderatuz (%77,80).

Irakaskuntzan esperientzia urte ezberdinak daramatzaten irakasleen erantzunak jaso direla aprobeztatzuz, kulturartekotasunari erantzun egokia emateko duten prestakuntzaren inguruan galdetzeari ere ekin zaio. Horretarako, bai irakaskuntzan hasi aurretik zein irakaskuntzan hasi ondoren jasotako formazioaren inguruan galdetu zaie. Jarraian aurkitzen dugun taula honetan (1. Taula), irakaskuntzan hasi aurretik jasotako formazioari buruzko datuak dauzkagu.

1. Taula: Egungo irakasleen formakuntza lan munduan hasi aurretik

FORMAKUNTZA	Bai		Ez	
	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)
<5 urte irakaskuntzan	11	%84,6	2	%15,40
5-15 urte irakaskuntzan	7	%77,8	2	%22,2
>15 urte irakaskuntzan	24	%85,7	4	%14,3

Irakaskuntzan hasi aurretik irakasleen %84ak formakuntza jaso du eta nahiz eta irakasle hauen esperientzia urteak ezberdinak izan, urte tarte bakoitzean formakuntza jaso duten irakasleen ehunekoak nahiko antzekoak izan dira. Dena den, esan beharra dago irakaslegoaren %16ak ez duela formakuntzarik jaso irakaskuntzan hasi aurretik.

Aipatu bezala, irakasleen %84ak formakuntza jaso izan du irakaskuntzan hasi aurretik eta jasotako formakuntza hori oso anitza izan da. Galdera horretan aurreikusten ziren bideak lau multzotan banatu dira: unibertsitatea, ikastaroak, bibliografia eta beste batzuk (mintegiak, lan-proiektuak etab.). Galdera honetatik jasotako erantzunak ondorengo taulan bildu dira (2. Taula):

2. Taula: Egungo irakasleen formakuntza mota lan munduan hasi aurretik

FORMAKUNTZA MOTA	<5 urte irakaskuntzan		5-15 urte irakaskuntzan		>15 urte irakaskuntzan	
	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)
Unibertsitatean	7	%53,8	4	%44,4	2	%7,1
Ikastaro baten bitartez	1	%7,6	0	%0	10	%35,7
Informazio edo bibliografia bilatuz	7	%53,8	3	%33,3	17	%60,7
Beste batzuk	3	%23	1	%11,1	12	%42,8

Irakaskuntzan hasi aurretik irakaslegoak jasotako formakuntza mota aztertzen badugu datu interesgarriak atera ditzakegu. Izan ere, esperientzia urteak kontuan hartuz, 5 urte baino

gutxiago irakaskuntzan daramatzaten irakasleen erdiak baino gehiago, %53,8a, hain zuzen ere, unibertsitatean kulturartekotasunari erantzuna emateko formakuntza jaso du eta 5 eta 15 urte bitarteko eskarmentua duten irakasleen %44,4ak hurrenez hurren jaso du prestakuntza unibertsitatean, irakasle eskolek hezkuntza sistemaren behar berriei erantzuteko ikasketa planen egokitzeko beharra ikusi dutelako. Baina 15 urte baino gehiago irakaskuntzan daramatzaten irakasleen %7,1ak bakarrik izan du unibertsitatean formazio hori jasotzeko aukera. Ziur aski horren azalpena da bere garaian magisteritza eskoletan arlo horretan prestakuntza emateko beharra ez zela oso beharrezkotzat ikusten eta azken urteotan eskolak izan duen bilakaerak aldaketa hori ekarri du. Beraz, ikus daiteke adierazgarria dela nola aldatzen diren hautatutako bideak irakasleen lan esperientziarekin gurutzatzen direnean.

Dena den, esan beharra dago esperientzia urteak edozein izanda ere, informazioa eta bibliografia ezberdinen bilaketa ere izan dela formazioa eskuratzeko bide nagusietako bat. Nahiz eta irakaskuntzan 5-15 urte bitartean daramatzaten irakasleen %33,3ak soilik jaso duen formakuntza mota hori, 5 urte baino gutxiago eta 15 urte baino gehiago daramatzaten irakasleen ehuneko handi batek bere kabuz bilatu ditu hainbat bibliografia ezberdin (%53,8ak eta %60,7ak). Datu honek erakusten digu irakasleok horretan prestatzeko interesa eta jarrera baikorra duela.

Esan bezala, irakasleei bai irakaskuntzan hasi aurretik zein irakaskuntzan hasi ondoren jasotako formakuntzaren inguruan galdetu zaie, eta lortutako datuak 3. *Taulan* aurkitzen dira:

3. *Taula: Egungo irakasleen formakuntza lan munduan hasi ondoren*

FORMAKUNTZA	Bai		Ez	
	<i>Maiztasun absolutua</i>	<i>Maiztasun erlatiboa (%)</i>	<i>Maiztasun absolutua</i>	<i>Maiztasun erlatiboa (%)</i>
<5 urte irakaskuntzan	7	%53,8	6	%46,2
5-15 urte irakaskuntzan	6	%66,7	3	%33,3
>15 urte irakaskuntzan	23	%82,1	5	%17,9

Irakaskuntzan hasi ondoren nabarmenak dira desberdintasunak irakasle taldeen artean. Belaunaldi gazteenaren barruan (5 urte arteko eskarmentua dutenak) erdiak gutxi gora behera (%53,8) hartu du prestakuntza. Gainerakoak (%46,2) ez du berariazko prestakuntzarik egin. Batetik, argi dago sisteman denbora gutxiago daramatenek denbora gutxiago izan dutela

etengabeko prestakuntza programetan parte hartzeko eta bestetik, unibertsitatean arlo horretan berariazko prestakuntza izan zutenek, ez dute hain premia handia izan eta agian bestelako alorretan bilatu dute prestakuntza, dela digitalizazioan, dela eleaniztasunean, dela Euskal Hezkuntza Sailak azken urteotan bultzatu dituen ildoetako edozeinetan.

Eskarmentu handiena duten irakasleen artean berriz, irakaskuntzan hasi ondoren berariazko prestakuntza jaso dutenen kopurua oso altua da (%82 pasata). Noski, alde batetik urte luzeetan metatu diren prestakuntza jarduerak kontuan hartu behar dira baina zalantzarik gabe unibertsitatean prestakuntza gutxien jaso zutenek, logikoa denez, berariazko prestakuntzaren beharra nabaritu dute jarduera profesionalean zehar eta behar hori asetzeko urratsak eman dituzte.

Irakaskuntzan hasi ondoren irakasle guztien %72ak jaso izan du kulturartekotasunarekin harremanatutako formakuntza, baina formazioa jasotzeko bideak ezberdinak izan dira, ondorengo taulan (4. Taula) azaltzen den bezala:

4. Taula: Egungo irakasleen formakuntza mota lan munduan hasi ondoren

FORMAKUNTZA MOTA	<5 urte irakaskuntzan		5-15 urte irakaskuntzan		>15 urte irakaskuntzan	
	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)
Ikastetxean						
bertan						
egindako	3	%42,8	3	%50	18	%78,3
ikastaroa						
Ikastetxetik						
kanpo egindako	2	%28,5	4	%66,6	13	%56,5
ikastaroa						
Hezkuntza						
Sailak						
eskainitako	2	%28,5	2	%33,3	14	%60,9
formakuntza						
programa						
Beste batzuk	2	%28,5	1	%16,6	14	%60,9

Goiko taulan (4. Taulan) agertzen diren ehunekoek adierazten duten bezala, esperientzia urte tarte guztietan ikastetxean bertan egindako ikastaroen bitarteko formazioa garrantzi handikoa da. Irakaskuntzan denbora gehien dihardutenean artean prestakuntza motarik hautatuenak ikastetxean bertan egindako ikastaroak eta Hezkuntza Sailak antolatutakoak izan dira; izan ere, %78,3k eta %60,9k hautatu dituzte hurrenez hurren. Eskarmentu gutxiagoko (5 urte baino gutxiago eta 5-15 bitartean) taldeetan prestakuntza biderik hautatuena ikastetxean bertan egindako ikastaroak izan dira, talde bietan irakasle erdiek inguru hautatu baitute (%42k eta %50k).

Beraz, ikastetxean bertan egindako ikastaroen eta hezkuntza sailak eskaintzen dituen formakuntzen bitartez jasotako formazioen ehunekoak nahiko altuak dira hiru kasuetan. Datu honen bitartez ondorioztatu dezakegu ikastetxeen ehuneko handi batek kulturartekotasunari erantzuteko jarduerak (formazioak) sortzen dituela.

Jasotako formazioaren datu ezberdinak bildu ondoren esan beharra dago irakaskuntzan hasi aurretik 50 irakasleetatik 8k (%16a) ez zuela formaziorik jaso. Eta irakaskuntzan hasi ondoren, 8 horietatik 5 formakuntza jaso arren, 3k ez dute inolako formakuntzarik izan, ez irakaskuntzan hasi aurretik ezta ondoren ere. Beraz, galdetegia erantzundako irakasleen %6ak ez du inoiz formakuntzarik jaso.

Galdetegia bete duten irakasleek jasotako formakuntzaz gain, formakuntza horri ematen dioten garrantzia ere aztertu da eta jasotako datuak 5. taulan bildu dira:

5. Taula: Egungo irakasleek formazioari ematen dioten garrantzia

FORMAZIOA ERABAT GARRANTZITSUA DA	<5 urte irakaskuntzan		5-15 urte irakaskuntzan		>15 urte irakaskuntzan	
	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)
	Ez nago batere ados	0	%0	0	%0	0
Ez nago guztiz ados	1	%7,7	0	%0	0	%0
Nahiko ados	0	%0	0	%0	1	%3,6
Oso ados	3	%23,1	3	%33,4	7	%25
Erabat ados	9	%69,2	6	%66,6	20	%71,4

Nahiz eta aurreko taulan (5. *Taula*) eskarmentu urteen arabera bereizketa egin, parte hartu duten irakasle guztien ehunekoa kalkulatu da eta ehuneko handi batek (%96) uste du kulturartekotasunean oinarritutako formazioak berebiziko garrantzia duela. Beraz, formazioaren inguruan jasotako emaitzak koherenteak direla ondorioztatu dezakegu, zeren eta irakasleen %94ak ardura hartu du kulturartekotasunaren inguruko prestakuntza hartzeko.

Ikastetxeek kultur-aniztasunari erantzuteko duten baliabide eta gaitasunen inguruan gehiago jakiteko asmoarekin honen inguruko galdera ezberdinak planteatu zitzaizkien. Orokorrean, ikastetxeek kultura-aniztasuna kudeatzeko dituzten plangintzen inguruan galdetu zitzaizkion %70ak baliabide horien existentzia ziurtatu zuen eta horien artean ondorengoak aipatu zituen; elkar-bizitza plana, harrera plana, hezkidetzeta plana, berritzegune zein aholkularien laguntza, hamaika esku... Baina irakasleen %30ak, ordea, plangintza horien falta adierazi zuen. Aniztasuna kudeatzeko plangintzez gain, giza-baliabideen inguruan ere galdetu zitzaizen eta %100ak baliabide horiek positiboki baloratu zituen, hain artean; HIPIa (%68), testu-fitxa egokituak (%94), cirriculum egokitzapenak (%88), logopeda (%88), Pedagogia Terapeutikoko Espezialista (%88) eta beste batzuk.


Nahiz eta erantzundako irakasleen %90ak ikastetxeko hezkuntza-proiektuan kulturartekotasuna islatzen dela baieztatu, %10ak ezetza eman du. Beraz, badaude zenbait ikastetxe oraindik horren falta erakusten dutenak. Bukatzeko, %78ak uste du haien gelan kulturartekotasuna lantzen duela, %22ak lantzen ez duela aitortzen duen era berean.

b) Ikasle eta irakasleen konparazioa


Ikerketa lan hau egiteko, parte-hartzaileen atalean azaldu dugun bezala, bai egungo irakasleei zein etorkizuneko irakasleei (egungo magisteritza ikasleei) galdetegi ezberdinak egin zaizkie. Aurreko atalean egungo irakasleen zenbait erantzun bildu eta alderatu ditugu, baina ondorengo atal honetan, berriz, egungo irakasleen eta etorkizuneko irakasleen arteko konparazioa egin da.

Horretarako, garrantzitsua da etorkizunean irakasle izango diren parte-hartzaileen inguruko informazio orokorra eskaintzea. Etorkizuneko irakasleei egindako galdetegia Gasteizen eta Leioan magisteritza ikasten ari diren ikasleen artean zabaldu da. Galdetegi hauek bete dituzten ikasleen artean, unibertsitate ezberdinetan ikasitako ikasleak dauzkagu eta hori adierazteko *4. sektore grafikoa* dugu. Horrez gain, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ikasten duten ikasleen erantzunak bildu dira eta ehuneko horiek adierazteko *5. sektore grafikoa* sortu da.

4. sektore grafikoa: Ikastetxeak




5. sektore grafikoa: Hezkuntza maila



Esan bezala, ondorengo atal honetan egungo irakasleengandik eta etorkizuneko irakasleengandik jasotako erantzunen arteko konparaketa egingo da, bi talde hauen artean eman daitezkeen erantzunen arteko ezberdintasunak identifikatzeko helburuarekin. Datu hauek adierazteko erantzunak taula eta barra grafiko ezberdinetan bildu dira.

Atal honetan aztertutako lehenengo galdera kultur-aniztasun ugaritasunarekin harremanatutakoa izan da. Horretarako, egungo irakasleei lanean aritzen diren ikastetxean ematen den kultur-aniztasuna nolakoa den galdetu zitzaien (handia, ertaina edo txikia) eta etorkizuneko irakasleei, ordea, galdera berdina planteatu zitzaien baina praktketan izandako esperientzian oinarrituz. Ondorengo grafikoan (4. Barra grafikoan) bildutako datuak aurki daitezke:

4. Barra grafikoa: Ikastetxe eta praktketan aurkitutako aniztasun kulturala



Taulan eta grafikoan agertzen diren datuak aztertzen baditugu, ikus dezakegu irakasleen %14ak soilik uste duela haien ikastetxean ematen den kultur-aniztasuna handia dela baina ikasleen erantzunak behatzen baditugu, ordea, ia erdiak, %45,7ak, praktketan izandako esperientzian oinarrituz kultur-aniztasun handia somatu duela deritzo. Kontuan izan

behar dugu kultur-aniztasunaz ari garenean ez diogula soilik ikasleen jatorriari behatu behar, izan ere, kultur-aniztasuna edozein ikastetxeetan dago. Dena den, badago egungo ikasleen %34,3a aniztasun-kultural txikia somatu duena eta nahiko ehuneko handia da egungo irakasleen ehunekoaren ondoan (%18).


Kulturartekotasunaren kontzeptuak zer esan nahi duen eta kulturartekotasunak zer suposatzen duen ezagutzea ezinbestekoa da bai egungo irakasleen zein etorkizunekoen zeregina modu egokian gauzatzeko. Ideia hau oinarri bezala hartuz, bai irakasleei zein ikasleei ondorengo hiru definizio ezberdinen artean aukeratzeko aukera eman zitzaien. Definizio horietako bat asimilazionismoarena izan zen, beste bat kultur-aniztasunarena eta bestea kulturartekotasunarena.

Emandako definizioen aukerak*

- a) Gizarte batean kultura-aniztasuna agertzeko modu bat da, eta espazio sozial berean kultura desberdinak dituzten giza taldeak egotean datza. Hau kultura desberdinen existentzian soilik oinarritzen da (ez bizikidetzaz- edo integrazio-egoera).
- b) Gizarte batean kultura desberdinak harremanetan daudenean ematen da, haien artean elkarbizitza, komunikazioa, negoziazioa eta elkartrukea dagoen heinean. Honek besteen kulturarekiko errespetua du abiapuntutzat, bai eta norberaren kulturarekiko eta bestearekiko errespetuzko ikuspegi kritikoa ere.
- c) Espazio edo herrialde zehatz batean kultura nagusiak kultura minoritarioa desagertaraztea helburutzat duenean ematen da. Kultura nagusiak boterea hartu eta kultura minoritarioko pertsonak haien kultura alde batera uzten dutenean.

Bai egungo irakasleek zein ikasleek emandako erantzunen datuak ondorengo grafikoan bildu dira.


5. Barra grafikoa: Kulturartekotasun kontzeptuaren ezagupena



Jasotako erantzunak behatzen baditugu esan beharra dago bai egungo irakasle eta ikasleen gehiengoek kulturartekotasunaren definizio zuzena erantzun zutela (b erantzuna). Dena den, bi taldeen artean ezberdintasun bat eman da; egungo irakasleen %8ak kulturartekotasuna kulturantzatasunarekin nahastu du baina etorkizuneko ikasleek, ordea, %100ak modu egokian definitu du. Pozteko modukoa da bi taldeetako ehunekorik handiena ondo erantzun izana, baina %8 horrekin ere lan egitea garrantzitsua da.

Horrez gain, bai egungo irakasleei zein etorkizuneko irakasleei haien praktketan edo lanbidean behatzen duten kultur-aniztasunaren arrazoien inguruan galdetu zitzairen. Horretarako, kultur-aniztasuna hiru arrazoirekin harremanatzeko aukera eman zitzairen; ekonomikoa, jatorria edo beste bat. Galdera honetatik lortutako emaitzak ondoren grafikoan bildu dira:

6. Barra grafikoa: Aniztasun-kulturalaren arrazoa



6. barra grafikoan ikus dezakegun moduan, irakasleen %46ak eta ikasleen %40ak kultur-aniztasuna ikasleen jatorriarekin harremanatzen du. Nahiz eta kasu honetan ehunekoen arteko ezberdintasuna oso handia ez izan, arrazoa ekonomikoa izatera pasatzen denean ehunekoen arteko ezberdintasun handiagoa ikus dezakegu. Kasu honetan, irakasleen %38ak soilik lotzen du bere ikastetxeko kultur-aniztasuna egoera ekonomikoarekin eta ikasleen ehuneko altu batek, %68,6ak ordea, egoera ekonomikoarekin harremanatzen du.

Kontuan izanda askotan kultur-aniztasuna beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleekin soilik harremanatzen dela eta hau bide okerra dela, datu hauek erakusten digute etorkizuneko irakasleen ehuneko handi batek ez duela kultur-aniztasuna soilik ikasle inmigranteekin harremanatzen eta beraz, haratago doala.

Alderatzeko interesgarria iruditu den beste galdera bat egungo irakasleek eta etorkizunekoek haien ikasgeletan dagoen/egongo den kultur-aniztasunarekiko ikuspuntua izan da. Horretarako, taulan agertzen den bezala kultur-aniztasuna oztopotzat edota ezagupenak garatzeko tresna baliagarritzat ikusten duten galdetu zaie. Ondorengo barra grafikoan (7. barra grafikoan) lortutako emaitzak bildu dira.

7. Barra grafikoa: Aniztasun-kulturala tresna baliagarri edo oztopo



Kasu honetan, bai egungo irakasleen zein etorkizuneko irakasleen ehuneko handienak kultur-aniztasuna tresna baliagarritzat definitu duen arren, ikasleen kasuan ehunekoa handiagoa izan da. Baina, oztopotzat ulertzerako momentuan, egungo irakasle eta etorkizunekoek artean eman diren ehunekoek arteko ezberdintasuna nabariagoa izan da. Izan ere, etorkizuneko irakasleen ehuneko oso txiki batek, %2,9ak uste du kultur-aniztasuna oztopoa suposatu dezakeela, baina egungo irakasleen %16ak horrela uste du. Beraz, ondorioztatu dezakegu etorkizuneko irakasleen ehuneko batek aniztasunarekiko jarrera positiboagoa erakusten duela.

Aipatu diren galderez gain, formazioari buruzko galderak alderatzea ere interesgarria izan daitekeela uste dut. Horretarako, alde batetik, aurreko atalean ikusi dugun bezala, egungo irakasleei lanean hasi aurretik jasotako formazioaren inguruan galdetu zitzaizkien. Galdera hau etorkizuneko irakasleei egiteko orain arte formaziorik jaso duten ala ez galdetu zitzaizkien. Galdera hauetatik lortutako emaitzak 6. Taulan bildu dira:

6. Taula: Egungo irakasleek eta etorkizunekoek jasotako formazioa lan munduan hasi aurretik

FORMAKUNTZA	Bai		Ez	
	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)
Irakasleak	41	%82	9	%18
Ikasleak	28	%80	7	%20

6. Taulan agertzen diren datuak aztertzen baditugu, ikus dezakegu bi kasuetan (bai egungo irakasle zein etorkizuneko irakasle) formazioa jaso izanaren ehunekoak nahiko antzekoak eta altuak direla. Baina, formatu ez direnen ehunekoak behatzen baditugu, bi taldeetan nahiko antzekoak direla kontuan hartzekoa da. Izan ere, gaur egun unibertsitatean aritzen direnen taldean ehuneko txikiagoa espero zen, kulturartekotasunarekin harremanatutako formazioa eta trataera gure egunerokotasunean gero eta presenteago dagoen gaia da eta.

Lan munduan hasi aurretik edo unibertsitatean ikasten dauden bitartean jasotako formazioaren inguruan galdetzeaz gain, bai lan munduan egon ondoren edo etorkizunera begira duten asmoen inguruan ere galdetu zitzaien. Hau da, egungo irakasleen erantzunen atalean ikusi den bezala, irakaskuntzan egon ondoren jasotako formazioaren inguruan galdetu zitzaien. Etorkizuneko irakasleei galdera hau planteatzeko, berriz, etorkizunera begira kulturartekotasunean formatzea edo formatzen jarraitzea lehenetsiko duten galdetu zitzaien. Galdera hauen erantzunak eta datuak 7. Taulan bildu dira:

7. Taula: Egungo irakasleek eta etorkizunekoek jasotako formazioa lan munduan hasi ondoren

LAN MUNDU OSTEKO FORMAZIOA	Bai		Ez	
	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)	Maiztasun absolutua	Maiztasun erlatiboa (%)
Irakasleak	38	%76	12	%24
Ikasleak	32	%91,4	3	%8,6

Lan munduan aritu ondoren irakasleen %76ak formazioa jasotzen jarraitu duen arren etorkizuneko irakasleen ehunekoen ondoan ez da hain ehuneko handia. Izan ere, etorkizuneko irakasleen %91,4ak arlo honetan formatzen jarraitzea lehenetsiko duela dio etorkizunera begira. Baina formaziorik jaso ez duten edo formazio hori lehenetsiko ez dutenen ehunekoak aipatzea ere garrantzitsua da. Egungo irakasleen artean, %24ak ez du formaziorik jaso behin lanean hasita. Dena den, etorkizunean irakasle izango direnen erantzunak behatzen baditugu, %8,6ak dio ez duela gai horretan formazioa jasotzeko aukera lehenetsiko.

Datuak hauek izanda, ondorioztatu dezakegu etorkizuneko irakasleak egungo irakasleak baino garrantzi handiago aitortzen diotela prestakuntza jasotzeari. Baina, ondorio hau guztiz erlatiboa da zeren eta irakasleen ehunekoak benetako esperientzia batean oinarritzen da eta ikasleena etorkizuneko espektatibetan oinarritzen da, agian etorkizunean gauzatuko ez direnak, prestakuntza behar ezberdinak izan ditzaketeelako.

Formazioaren garrantziaren inguruan jakiteko irakasle zein ikasleei formakuntzaren beharrekiko adostasun mailaren inguruan galdetu zitzaizen. Bi taldeetatik jasotako emaitzen bilketa 8. *Taulan* adierazita dago:

8. *Taula: Egungo irakasleek eta etorkizunekoek formazioari ematen dioten garrantzia*

FORMAZIOA ERABAT GARRANTZITSUA DA	Irakasleak		Ikasleak	
	<i>Maiztasun absolutua</i>	<i>Maiztasun erlatiboa (%)</i>	<i>Maiztasun absolutua</i>	<i>Maiztasun erlatiboa (%)</i>
Ez nago batere ados	0	%0	0	%0
Ez nago guztiz ados	1	%2	0	%0
Nahiko ados	1	%2	0	%0
Oso ados	13	%26	2	%5,7
Erabat ados	35	%70	32	%94,3

Bai egungo irakasleen zein etorkizuneko irakasleen erantzunen ehuneko altuenek adierazten dute irakasleagoa kulturartekotasunean formatuta egotea oso garrantzitsua edo erabat garrantzitsua dela. Dena den, egungo irakasleen taldean badago %4ak uste duena formazio horrek ez daukala hainbesterako garrantzirik eta etorkizuneko irakasleen taldean, berriz, %0. Nahiz eta ehunekoak oso txikiak izan, esan dezakegu ezberdintasun bat ematen dela eta ezberdintasun hori txikia izan arren, etorkizuneko irakaskuntzan eragin bat eduki dezakeela.

ONDORIOAK

Egindako galdetegietatik jasotako emaitzak bildu ondoren konklusio eta ondorio ezberdinak atera dira, finkatutako helburuak kontuan hartuz.

Ondorioen atalari hasiera emateko, egungo irakasleek kulturartekotasun kontzeptuarekiko duten ezagupen maila neurtu duen galdera aipatzea gustatuko litzaidake. Galdera honetatik ateratako emaitzek erakutsi dute irakasleen %92ak kulturartekotasunaren definizio egokia eman duela baina aldi berean sare publikoan aritzen diren irakasleen erdiak baino gehiagok (%51,61) jatorriarekin lotu du aniztasun hori. Datu hau, kulturartekotasunak zer suposatzen duen ondo dakitela zalantzan jartzeko modukoa dela deritzot. Kultur-aniztasuna beste jatorri bateko ikasleekin soilik harremanatzearen arriskueta bat izan daiteke kulturartekotasunean jarduteko ekintzak jatorri ezberdinetako ikasleei soilik bideratuta egotea, jatorria edozein izanda ere ikasle guztiak kulturalki anitzak direla ahaztuz. Zalantza barik, datu hauek erakusten dute kulturartekotasunaren ezagutza teorikoa hedatuta dagoela profesionalen artean baina praktikan kulturartekotasun horren dimentsio osoa bereganatzetik urrun daude. Oraindik ere kostatzen da kultur izaera ezberdina hezkuntza komunitate osoari dagokiola ikustea, ez soilik ikasle etorkinei. Marko teorikoan jaso dugun bezala (Besalú, 2002), kulturartekotasunean aritzea, ikasle bakoitzaren berezitasuna errespetatzen duen hezkuntza-markoan aritzea da benetako eskola inklusiboa lortzeko asmoz.

Teoriatik arlo praktikora salto egiteko arazo honen beste arrazoi bat eguneroko gizarte-ohiturak izan daitezke. Profesionalak gizarteko izakiak diren heinean, nagusiki bertoko jendearekin harremanatzen dira eta giza talde horren barruan dauden berezitasunak ez zaie deigarri suertatzen; ez dira kultur aniztasunaren ezaugarriak balira bezala antzematen. Kultura urrunagoko norbanakoen berezitasunak, berriz, errazegi jatorri desberdin horri egozten zaizkio eta ikuspuntu horretatik lantzen dira eskolan.

Gainera, kultur-aniztasuna nolakotzat ikusten duten galdetu zaienean (handia, ertaina edo txikia) %18ak haien ikastetxeko kultur-aniztasuna txikia dela esan du. Baina ezin dugu ahaztu aniztasun-kulturala handia izaten dela ikastetxe guztietan, kulturartekotasunaren azken ikerketen arabera definizioz ikasle guztiak ezberdinak eta anitzak direlako. Izan ere, kulturaren kontzeptua aztertzean kulturaren izaera kolektiboarekin batera bere ikusmira individuala ere ikusi dugu:

- Guztiok esparru kultural baten parte garen arren, subjektu bakoitzak bere kulturaren ikuspegi zehatza du.

Kontzeptu hau funtsezkoa da eskola inklusiboa aurrera eramateko orduan. Eskola inklusiboaren kontzeptua ez dago jadanik lotuta ikasle talde zehatz baten hezkuntza beharrekin, baizik eta ikasleria osoaren hezkuntza beharrak zaintzeko.

Sare publikoan aritzen den irakaslegoaren %51,61ak kultur-aniztasuna jatorriarekin lotzeak beste motatako ondorioak ateratzeko aukera ematen digu, haien artean, sare horretan dagoen ikaslegoaren ehuneko handi bat atzerrikoa dela. Errealitate horren arrazoen artean, zalantza barik, arlo sozio-ekonomikoari dagozkionak topa ditzakegu. Orokorrean atzerriko jatorria duten familiek maila ekonomiko eta gizarte integrazio baxuak izaten dituzte. Eskola publikoak diruz lagunduta edo erabat dohain eskaintzen dizkie zenbait zerbitzu (hala nola jantokia edo garraioa), itunpekoetan sarritan ezinezkoa dena. Kultur mailan ere, batez ere sinesmen erlijiosoak direla eta, eskola publikoan giro neutroagoa aurkitzen dutela aitortzen dute. Horri gehitu behar zaio eskolen kokapena bera. Eskola publikoak biziguneetatik gertuago kokatuta daude eta garraio beharra izanez gero guztiz dohain izaten dute.

Emaitzen atalean azaldu den bezala, egungo irakasleek kultur-aniztasuna oztopotzat edo tresna baliagarritzat ulertzen duten ere galdetu zaie eta galdera horretatik lortutako emaitzek ere zenbait ondorio ateratzeko aukera ematen digute. Elkarriketatutako irakasle guztiak batera kontuan hartuz gero, %84k tresna baliagarritzat hartzen du eta %16k, berriz, oztopotzat. Datuak irakasle horien eskarmentuaren arabera aztertzen baditugu, ikus dezakegu irakasleen esperientzia urteek gorantz egiten duten heinean, aniztasun-kulturala oztopotzat ulertzearen joerak ere gora egiten duela. Eskarmentuarekin kultur-aniztasunaren ikuspegi negatibo honen igoeraren arrazoiaren atzean, ziurtasunez ezin esan daitekeen arren, klase-egoeran eguneroko jardunak (materialak, kurrikulumak, metodologia) aniztasunari etengabe egokitzeko beharraren lana eta zailtasuna egon daitezkeela pentsatzekoa da. Beste faktore bat formakuntza falta izan daiteke; izan ere, irakasleen %6k aitortzen du batere alor honetan formaziorik inoiz jaso ez izana. Gainera zenbait irakasleren balorazio horretan eragina izan dezake taldearen ikas-prozesuaren moteltzearen irudipenak. Ezezaguna den esparruan aritu beharraren aurrean erreparoa sentitzea eta zeregina oztopotzat hartzea naturala da baina gelan dagoen irakasleak ezin dio egoerari iskin egin. Horrek agerian uzten du prestakuntza egokia izatearen garrantzia. Prestakuntza egokia izan dadin, hiru urrats bete behar dira gutxienez. Lehendabizi prestakuntza ulertu behar da, gero haren inplikazioez jabetu eta azkenik, praktikara eraman. Prestakuntza eskasa egon daiteke aberasgarria den aniztasuna oztopotzat hartzeren atzean. Prestakuntza egokiak egoera kudeatzeko baliabideak eman behar dizkio hezitzaileari.

Hala ere, 5 eta 15 urteko eskarmentua dutenen eta 15 urtetik gorako eskarmentua dutenen artean azken hauek dira aniztasunaren aurrean jarrera positiboagoa dutenak. Printzipioz, espero zitekeen helduagoen artean aniztasunaren aurrean jarrera ezkorragoa aurkitzea baina ez da hala izan. Hala ere, emaitzen atalean dagoen informazioarekin alderatuz gero, datu honek koherentzia irabazten du. Izan ere, elkarrizketatutako irakasleen artean, eskarmentu handiena dutenek aitortzen dute formakuntza jaso dutela oso era anitzean (% 7 unibertsitatean, %35 ikastaroen bitartez, %60 bibliografiaren bitartez eta %42 bestelako moduetan) eta askok modu hauek konbinatuz. Eskarmentu ertainekoen artean berriz, unibertsitatean jasotako formakuntza arruntagoa den bitartean (%44), bestelako formakuntza motak urriagoak izan dira (azpimarragarria da elkarrizketatutako irakasleen artean talde honetako bakar batek ere ez duela kulturartekotasunaren inguruan ikastarorik egin). Zalantza gabe, aniztasuna aberasgarritzat ikusteko ahaleginean formakuntza ezinbestekoa da, batez ere irakasleen artean baliabide teoriko zein praktikoen elkartrukatzea bultzatzeko. Formakuntzaz gain, eskarmentuak ere laguntzen du. Klaseetako aniztasuna denboran zehar behin eta berriz kudeatu beharrak ohitura sortzen du eta lehen unean oztopotzat ikusten dena, denboraz klasearen ohiko eta ezinbesteko osagarri gisa ikusi, onartu, bereganatu eta baliatzen ikasten da. Gainera eskarmentu gehien duten askok prestakuntza gisa mintegiak eta proiektuak burutu dituzte. Ikastetxean burututako proiektuek esparru teorikotik praktikora igarotzeko eta prozesu horren inguruko hausnarketa egiteko aukera ematen diete irakasleei, eta beraz, ikasgelan aniztasuna elementu positibotzat baliatzeko aukera ere.

Formakuntzari buruz egindako galderak ere konklusio anitzak ateratzeko aukera ematen digu. Alde batetik, egungo irakasleagoak duen adinaren arabera jasotako formakuntza motaren artean ezberdintasun nabariak aurki ditzakegu. Esaterako, aniztasunaren arloan unibertsitateko formakuntza askoz ohikoagoa da eskarmentu gutxiko irakasleen artean (%53,8), eskarmentu handiko irakasleen artean baino (%7,1). Beraz, urteak aurrera egin ahala hezkuntza ulertzeko beste modu bat garatu da eta unibertsitateak etorkizuneko irakasleei formazio hori emateko beharra antzeman du. Gauzak horrela, etorkizuneko irakasleek egungo ikastetxeen aniztasunari erantzuteko prestakuntza handiagoa izango dute egungoak baino, eta ondorioz, gaitasun handiagoa. Baina era berean honek paradoxa baten aurrean kokatzen gaitu. Batetik ikasle garaian prestakuntza handiagoa jaso dute kulturartekotasuna kudeatzeko baina bestetik oraindik ere gazteen artean hainbat irakaslek oztopotzat ikusten dute. Kulturartekotasuna kontzeptua ulertzeko ziur asko ez da nahikoa prestakuntza akademikoa. Prestakuntza akademikoari, eguneroko jarduna erantsi behar zaio eta, gorago aipatu dugun bezala, eguneroko bizimoduan mantentzen diren harremanak ez dira anitzak; giza talde homogeneousetan jarduten dute norbanako ezberdinen arteko elkarrizketa eta komunikazio txikia burutuz.

Lan munduan hasi ondoren jasotako formakuntza behatzen badugu, 15 urte baino gehiagoko esperientzia dutenen ehunekoak nabarmen altuagoak dira 5 urte baino gutxiago irakaskuntzan daramaten irakasleenak baino. Adibidez, 5 urte baino gutxiago daramaten irakasleen %28,5ak soilik jaso du Hezkuntza Sailak eskainitako formakuntza programa, baina 15 urte baino gehiago daramaten irakasleen %60,9ak jaso izan du formazio hori. Egia esan, datu hauek nahiko kezagarriak dira, 5 urte baino gutxiagoko eskarmentua duten irakasleek unibertsitatean formazio hau jasotzeko zortea edukitzeak, ez du esan nahi etengabeko formazioa beharrezkoa ez denik. Hau da, datu hauen bitartez ondorioztatu daiteke 15 urte baino gehiagoko eskarmentua dutenek interes edo behar handiagoa izan dutela ikasleen aniztasunari erantzun ahal izateko. Dena den, izan daiteke esperientzia urteek ere eragina izatea; hau da, irakaskuntzan 15 urte baino gehiago daramatzen irakasle batek askoz denbora gehiago izan du arlo horretan formatzeko, 5 urte baino gutxiagoko eskarmentua duen batek baino. Beraz, etengabeko formakuntzarako programen bitartez hutsune hau betetzeko ahalegina egiteak merezi du. Horretarako kulturartekotasunaren inguruan irakasleei zuzendutako prestakuntza jarduerak diseinatzen eta baliabideak haien eskura jartzen dituzten programen antolakuntzan jarraitzeko egokitasuna azpimarratu behar da. Prestakuntza programa horiek ikastetxeen eguneroko jardunean txertatzeari garrantzia edo lehentasuna eman behar zaio.

Horrez gain, kulturartekotasunean formatuta egoteak duen garrantziaren inguruan galdetu zitzaizanean ere nahiko harritu ninduten jasotako emaitzak. Irakaskuntzan 5 urte baino gutxiago daramaten irakasleen %7,7ak uste du formazio horrek ez duela inolako garrantzirik baina esperientzia urteek gora egin heinean ehuneko altuenek formazio horren erabateko garrantzia aipatzen dute. Ikerketa lan honekin hasi aurretik, irakasle gazteenek gaiarekiko interes eta ezagutza gehiago edukiko zutelakoan nengoen. Baliteke, lan munduan esperientzia urteek formazio horren beharra erakusten dutela eta beraz, irakaskuntza munduan eskarmentu gutxi daramaten irakasleen ehuneko batek oraindik formazio horren beharrik ez antzematea.

Orain arte ateratako ondorio guztiak egungo irakasleen erantzunetan oinarrituz ateratakoak izan dira. Baina egungo irakasle eta ikasleen erantzunen alderaketatik ere ondorio garrantzitsuak atera ditzakegu.

Lehenik eta behin, irakasle eta ikasleei bai lanean aritzen diren ikastetxean zein praktikan zehar bizi izandako esperientzian oinarrituz aurkitutako kultur-aniztasunaren galderatik bildutako emaitzak aipatzea gustatuko litzaidake. Egungo irakasleei dagokionez, %14ak soilik uste du haren ikastetxean ematen den kultur-aniztasuna handia dela baina

ikasleen ia erdiak, %45,7ak, praktiketan izandako esperientzian oinarrituz, kultur-aniztasun handia somatu duela deritzo. Kontuan izanda kultur-aniztasuna orokorrean ikastetxe guztietan ematen dela eta gehienetan handia izaten dela, ondorioztatu dezakegu etorkizuneko irakasleek aniztasun kulturalaren kontzeptuarekiko sentiberatasun handiagoa erakusten dutela kultur-aniztasuna identifikatzeko prestatuago daude eta.

Horrez gain, etorkizuneko irakasleek kultur-aniztasunaren kontzeptua hobeto menperatzen dutela erakusten digun beste datu bat daukagu. Egungo irakasleen ehuneko handienak (%46ak) kultur-aniztasuna ikasleen jatorriarekin harremanatzen duen arren, ikasleen %68,6ak egoera ekonomikoarekin lotzen du. Tradizioz kultur-aniztasuna atzerrian jatorria duten ikasleekin soilik lotu da eta hau ez dator bat egungo ikuspegiarekin. Beraz, etorkizuneko irakasleek barneratuta daukate kultura aniztasuna ikasleen jatorria baino haratago doala eta beste osagarri batzuk kontuan hartu behar direla.

Dena den, irakasle eta ikasleen arteko iritzi ezberdintasun honek baliteke beste iturri bat edukitzea, esperientzia alegia. Ikasleek eskoletan praktikak azken bizpahiru urteotan burutu dituzte, eta beraz ikusi dituzten geletan dauden jatorri atzerriko ikasleek ziur asko denbora luzea daramate gure artean (2008ko krisia gainditu dutenak, batez ere) eta beraz Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan gehienak hasieratik sartzeko aukera izan dute. Haien integrazio maila handiagoa da duela hogeitau urte gurasoekin batera eta adin batekin lehen inmigrazio mugimenduetan gure Hezkuntza sisteman atzerapenez sartu behar izan zirenean baino. Eskarmentu luzeko irakasleek ikasle horien etorreraren eta haien integrazio arazoan lekuko izan ziren, batzuetan urteotako atzerapenez, agian 10 edo 12 urte beteta, integratu behar izan baitziren. Esperientzia hori ez da erraza memoriatik ezabatzea, eta beraz logikoa izan daiteke kultur aniztasuna horrekin lotzea.

Datu hauek etorkizuneko irakasleek kultur-aniztasunaren kontzeptuarekin sentiberagoak direla ulertzera ematen duten arren, badaude zenbait datu hori zalantzan jartzera bultzatzen nautenak. Adibidez, aurkitutako kultur-aniztasunaren arrazoia zein den galdetu zaienean, egungo ikasleen %11,4ak ekonomikoa edo jatorrizkoa ez den beste arrazoi batekin harremanatu du, eta ehuneko txikia da egungo irakasleen ehunekoaren ondoan (%16). Ikastetxe batean dagoen kultur-aniztasuna ikasleen egoera ekonomiko eta jatorria ez ezik, beste hainbat arrazoiekin harremanatuta egon daiteke. Eta kasu honetan, egungo irakasleen ehuneko altuagoak harremanatu du beste arlo batzuekin ikasleekin alderatuz. Hori dela eta pentsatu dezakegu egungo irakasleek kultur-aniztasuna arlo ezberdinekin proportzio handiago batean harremanatzen dutela, ikasleek baino. Pentsa daiteke ikasleen erantzunak desigarritasun sozialaren eragina izan dezaketela; hau da, ikasleek unibertsitatean arlo

teorikoan ikasitakoan oinarritu direla haien erantzunak ematerakoan pentsatuz hori dela gizarte mailan haiengandik espero den erantzuna. Honek berresten du ezagutza teorikoa praktikara eramatearekin osatu behar dela kultur-aniztasunaren kontzeptua osatzeko eta geletako aniztasunaren konplexutasunaz ohartzeko.

Egungo irakasleei eta ikasleei kultur-aniztasunak zer suposatzen duen (tresna baliagarria edo oztopoa) galdetu zitzaizenean ehunekoen artean ezberdintasun nabariak lortu ziren. Egungo irakasleen ehuneko handi batek (%16) aniztasunarekiko jarrera ezkorragoa erakusten du etorkizuneko irakasleekin alderatuz (%2,9). Nire ustez, hau arrazoi ezberdinengatik izan daiteke; alde batetik, baliteke egungo ikasleek gaiarekiko gertutasun gehiago edukitzea eta horregatik aniztasunarekiko trataera bai unibertsitatean zein egunerokotasunean praktikan jartzea. Gainera, aniztasun horri erantzun egokia emateko formazioa jasotzeak eta gaiarekiko gertutasuna edukitzeak jarrera positiboagoa izatera bultzatzen dituela uste dut. Egungo irakasleen ehuneko horrek aniztasuna oztopotzat ulertzearen arrazoiak ere anitzak izan daitezke; gorago hainbat hausnarketa idatzi ditugu litezkeen arrazoi gisa baina denen artean prestakuntza egokia jaso ez izana azpimarratu nahi nuke; izan ere, irakasleen %6k aitortzen du ez duela inoiz inolako prestakuntzarik arlo honetan izan. Zalantza barik, egoera horretan kultur-aniztasunari aurre egiteak zailtasun handiko eginkizuna izan behar du.

Egungo irakasleei zein ikasleei lan munduan hasi aurretik formaziorik jaso duten ala ez galdetu zaienean, bi talde hauen artean emandako ehunekoak nahiko antzekoak izan diren arren, lan munduan hasi ondoren jasotako formazioaren ehunekoak deigarriak izan dira. Izan ere, egungo ikasleen %8,6ak ez du kulturartekotasunean formatzea lehenetsiko etorkizunari begira eta egungo irakasleen kasuan %24ak ez zuen formaziorik jaso lan munduan hasi aurretik. Datuak hauek izanda, ondorioztatu dezakegu etorkizuneko irakasleak egungo irakasleak baino garrantzi handiago aitortzen diotela prestakuntza jasotzeari. Hala ere, ondorio hau zuhurtziaz baliatu behar dugu zeren eta irakasleen iritziak bizi izandako lan eskarmentuan du oinarri eta ikasleen ikuspegiak berriz litekeen etorkizun batean burutu nahi izango luketen zereginetan, etorkizun hori errealitate bihurtuko den ala ez jakin gabe.

Bestalde, orokorrean formazio horri garrantzirik ikusten dioten ala ez galdetzerakoan badago irakasleen artean %4 arlo honetan formakuntza izateari horrenbesteko garrantzirik aitortzen ez diona (izan ere, esan dugu %6k ez duela inoiz formaziorik izan). Ikasleen kasuan proportzio hau erabat desagertzen da, %0 izanik. Beraz, etorkizunean irakasle izango direnen ehuneko ehunak formazio hori garrantzitsua dela uste badu, hezkuntza-kalitate hobea eta inklusiboa ziurtatu dezakegu.

Bukatzeko, azken puntu bat ekarri nahi nuke atal honetara, kultur-aniztasuna kudeatzeko ikastetxeek dituzten baliabideei dagokiena, alegia. Datuak ikusita, ikastetxeetako gehiengo zabal batek kultur-aniztasuna kudeatzeko tresnak sortu ditu eta bere eguneroko plangintzan zein dokumentazio ofizialean txertatzeaz gain (elkarbizitza plana, harrera plana, hezkidetza plana) hainbat egokitzapen mota ere burutu dituzte (testu zein kurrikulum egokitzapenak) . Ikastetxetik kanpoko laguntza-zerbitzuak ere haien ohiko jardueraren parte gisa bereganatu dituzte (Berritzegunea eta bertako aholkulariak, psiko-pedagogoak, Hamaika Esku programa). Hezkuntza Sailak eskainitako giza-baliabideak baliatzen dituzte (HIPI irakasleak). Nahiz eta zenbait ikastetxetan gabeziak nabaritu eta oraindik lanean jarraitzea beharrezkoa den, zalantza gabe kulturartekotasunak ikastetxeen bizitzan sartu eta esparru garrantzitsua hartu du.

- **Etorkizuneko ikerketa lerroak**

Emaitzak aztertu eta hausnarketarako parada hartu ondoren, ondorioek etorkizunean ikerketa lerro batzuk zabaltzearen komenigarritasuna iradokitzen dute.

Bai ikasleek bai irakasleek jaso duten prestakuntzaren egokitasunak zalantzak sortu dira. Batez ere arlo teorikoan lortutako emaitzek praktikan isla handiagoa izatea espero zitekeen. Ikasleek unibertsitatean eta irakasleek urteetan zehar bibliografiaren bitartez kulturartekotasunaren inguruko kontzeptu teorikoa ikasi duten arren, eguneroko ikasgeletako egoeran aniztasun horren konplexutasun guztia antzemateko zailtasun handiagoak izan dituzte. Prestakuntza etengabearen egokitasuna eta prestakuntza horren arlo praktikoa nola dinamizatu ikerketa lerroak zabaltzea izan daiteke lehen urratsa hobekuntzarako.

Ikerketarako beste lerro berri bat izan daiteke nola aldatu den kultur aniztasunaren pertzeptzioa azken urteotan. Ikusi dugun legez, irakasleen artean gehiengo batek lotzen zuen aniztasuna jatorriarekin eta ikasleen artean berriz gehiengoak lotzen zuen egoera ekonomikoarekin. Jatorri ezberdineko ikasleen presentzia normaldu den heinean, belaunaldi berriek ere bereganatu dute eta asetu behar diren bestelako eskasiak ikusten dituzte. Ikerketa lerro horrek bere eragina eduki beharko luke laguntza programen diseinuan eta helburuetan.

IKERKETAKO AHULGUNEAK ETA ZAILTASUNAK

Gradu Amaierako lan hau COVID 19 osasun krisian burutu izanak bere eragina izan du bai emaitzetan bai emaitza horien balioan. Batetik, eskoletako aurrez-aurreko jarduna etenda egoteak zaildu egin du irakasleen harreman zuzena izateko aukera. Aukera hori izateak erraztuko zukeen zenbait erantzun irekiren nondik norakoak zehaztea eta haien atzean egon zitezkeen arrazoiengatik hausnarketa partekatzea.

Osasun krisiak lana mugatu duen beste arlo bat partehartzaileen kopurua izan da. Formularioak helarazteko ezagunen bitartekaritza erabili behar izan da. Ezinezko suertatu da eskolara bertaratzea eta irakasleei zuzen egitasmoaren berri ematea. Arazo bera izan da ikasleen kasuan, fakultatea itxita egonda. Hala ere, lortu den partehartzaileen kopurua ikuspegi orokorra lortzeko bezain anitza izan da.

Beste arazo bat desiragarritasun soziala bezala ezagutzen dena izan daiteke. Zenbait galderetan partehartzaileek eman dituzten erantzunetan (kulturartekotasun kontzeptua definitzean edo aniztasunaren arrazoiak zehaztean) desiragarritasun soziala delakoaren eragina antzeman daiteke. Haien erantzunak gizarte mailan espero denaren arabera dira baina gero arlo praktikoan kultur aniztasun zenbait alderdi ez dira beti identifikatzen. Honek zailtzen du ondorio sendoetara ailegatzea eta agian horretan sakontzen duen ikerketa berriaren beharra islatzen du.

ERREFERENTZIAK

- Arroyo González, M.J (2013). La Educación Intercultural: un camino hacia la educación inclusiva. *Revista de Educación Inclusiva* 6, 144-159.
- Azorín Abellán, C.M y Sandoval Mena, M (2019). *Apoyos para avanzar hacia una educación más inclusiva en los centros escolares: análisis de guías para la acción*.
- Beltrán, J (2016). *La interculturalidad*. Barcelona: UOC.
- Bernabé Villodre, M (2012). Pluriculturalidad, multiculturalidad e interculturalidad, conocimientos necesarios para la labor docente. *Revista Educativa Hekademos*, 11.
- Besalú, X. (2002). *Diversidad cultural y educación*. Madrid: Síntesis Educación.
- Bueno Ruiz, A (2009). Método de encuesta; construcción de cuestionarios, pautas y sugerencias. *Revista d'Innovació i Recerca en Educació*.
- Comboni Salinas, S. y Juárez Núñez, J.M (2019). *Las interculturalidad-es, identidad-es y el diálogo de saberes*.
- Galindo Morales, R (2005). *Cambios Curriculares en las Ciencias Sociales para responder a la multiculturalidad* - Universidad de Granada.
- Giménez Romero, C (2003). Pluralismo, Multiculturalismo e Interculturalidad. Propuesta de clarificación y apuntes educativos. *Revista Educación y Futuro* 8, 11-20.
- López, M. (2004). *Construyendo una escuela sin exclusiones. Una forma de trabajar en el aula con proyectos de investigación*. Málaga: Ediciones Aljibe.
- Stainback, S. y Stainback, W. (1999). *Aulas inclusivas*. Madrid: Narcea.
- Tuts, M. (2007). Las lenguas como elementos de cohesión social. Del multilingüismo al desarrollo de habilidades para la comunicación intercultural. *Revista de Educación* 343, 35-54.
- Vilar García, M (2009). La diversidad cultural en educación desde enfoques multi e interculturales: conceptos y realidades. *Revista Sociedad y Discurso*, 16, 102-118.

ERANSKINAK

I. Eranskina: Irakasleen galdetegia

1. Aukeratu bat

- a. Emakumezkoa
- b. Gizonezkoa
- c. Beste bat

2. Zenbat urte dituzu?

- a. 25-35
- b. 35-45
- c. 45-65

3. Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan?

- a. 5 urte baino gutxiago
- b. 5-15 urte bitartean
- c. 15 urte baino gehiago

4. Non egiten duzu lan?

- a. Haur Hezkuntzan
- b. Lehen Hezkuntzan
- c. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan
- d. Beste batzuk

5. Lanean aritzen zaren ikastetxea...

- a. Publikoa da
- b. Itunpekoa da

6. Lan egiten duzun ikastetxea ze probintzietan dago?

- a. Bizkaia
- b. Araba
- c. Gipuzkoa
- d. Beste bat

7. Zure eskolako ikasleen kultur-aniztasuna nolakoa dela esango zenuke?

- a. Handia
- b. Ertaina
- c. Txikia

8. Zure eskolako ikasleen kultur-aniztasunaren arrazoi nagusia zein izango litzateke?

- a. Ekonomikoa
- b. Jatorria
- c. Beste bat

9. Zer esango zenuke suposatzen duela kultur-aniztasunak zure eskolan?

- a. Tresna baliagarria ezagupenak garatzeko
- b. Oztopo bat klaseak aurrera eramateko

10. Ondorengo definizioetatik zein esango zenuke dela kulturartekotasunaren definizioa?

- a. Gizarte batean kultura-aniztasuna agertzeko modu bat da, eta espazio sozial berean kultura desberdinak dituzten giza taldeak egotean datza. Hau kultura desberdinen existentzian soilik oinarritzen da (ez bizikidetzan- edo integrazio-egoera)
- b. Gizarte batean kultura desberdinak harremanetan daudenean ematen da, haien artean elkarbizitza, komunikazioa, negoziatioa eta elkartrukea dagoen heinean. Honek besteen kulturarekiko errespetua du abiapuntutzat, bai eta norberaren kulturarekiko eta bestearekiko errespetuzko ikuspegi kritikoa ere.
- c. Espazio edo herrialde zehatz batean kultura nagusiak kultura minoritarioa desagertaraztea helburutzat duenean ematen da. Kultura nagusiak boterea hartu eta kultura minoritarioko pertsonak haien kultura alde batera uzten dutenean.

11. Kultur-aniztasuna kudeatzeko formakuntzarik jaso zenuen irakaskuntzan hasi aurretik?

- a. Unibertsitatean
- b. Ikastaro baten bitartez
- c. Nire kabuz (informazio eta bibliografia ezberdinak bilatuz)
- d. Beste batzuk

12. Irakaslea zarenetik kulturartekotasuna kudeatzeko formakuntzarik jaso duzu?

- a. Ikastetxean bertan egindako ikastaroen bitartez
- b. Ikastetxetik kanpo egindako ikastaroen bitartez
- c. Hezkuntza-sailak eskaintzen dituen formakuntza programen bitartez
- d. Beste batzuk

13. “Irakaslegoa kulturartekotasunean formatuta garrantzitsua da” esaldiarekin zein adostasun maila erakusten duzula esango zenuke?

- a. Ez nago batere ados
- b. Ez nago guztiz ados
- c. Nahiko ados
- d. Oso ados
- e. Erabat ados

14. Lan egiten duzun ikastetxean kulturantzitasuna kudeatzeko plangintzarik dago? Egotekotan, zein?

15. Zure eskolan baliabide bereziak daude kulturantzitasuna kudeatzeko?

- a. Psikologoa
- b. Logopeda
- c. Pedagogia Terapeutikoko Espezialista
- d. Curriculum egokitzapenak
- e. Testu edo fitxa egokituak
- f. Ikus-entzunezko baliabideekin lagundutako testuak
- g. Harrera plana
- h. HIPI-a
- i. Beste batzuk

16. Ikastetxeko Hezkunza Proiektuak kulturartekotasuna islatzen du?

- a. Bai
- b. Ez

17. Kulturartekotasuna zure gelan aurrera eramateko jarduerarik egiten duzula esango zenuke? Zeintzuk?

II. Eranskina: Ikasleen galdetegia

1. Aukeratu bat

- a. Emakumezkoa
- b. Gizonezkoa
- c. Beste bat

2. Zenbat urte dituzu?

- a. 17-20
- b. 20-25
- c. 25etik gora

3. Non ikasten duzu?

- a. Leioan (EHU)
- b. Gasteizen (EHU)
- c. Donostin (EHU)
- d. Eskoriatzan
- e. Deuston
- f. BAM
- g. Beste bat

4. Zer ikasten duzu?

- a. Lehen Hezkuntzako Gradua
- b. Haur Hezkuntzako Gradua

5. Praktikak egin dituzun ikastetxearen sarea zein da?

- a. Publikoa
- b. Itunpekoa
- c. Bietan ibili naiz
- d. Ez dut praktikarik egin

6. Lanean hasten zarenean kultur-aniztasun handiko errealitatea aurkituko duzula uste duzu?

- a. Bai
- b. Ez

7. Praktikak egin dituzun ikastetxean aurkitzen den aniztasun-kulturala nolakoa dela esango zenuke?

- a. Handia
- b. Ertaina
- c. Txikia
- d. Ez dut praktikarik egin

- 8. Gaur egungo hainbat ikastetxeetan ematen den kultur-aniztasunaren arrazoi nagusia zein dela esango zenuke?**
- a. Ekonomikoa
 - b. Jatorria
 - c. Beste bat
- 9. Etorkizuneko irakasle gisa, zer esango zenuke suposatzen duen kultur-aniztasunak?**
- a. Oztopo bat klaseak aurrera eramateko
 - b. Tresna baliagarria ezagupenak garatzeko
- 10. Ondorengo definizioetatik, zein esango zenuke dela kulturartekotasunaren definizioa?**
- a. Gizarte batean kultura-aniztasuna agertzeko modu bat da, eta espazio sozial berean kultura desberdinak dituzten giza taldeak egotean datza. Hau kultura desberdinen existentzian soilik oinarritzen da (ez bizikidetzaren edo integrazio-egoera)
 - b. Gizarte batean kultura desberdinak harremanetan daudenean ematen da, haien artean elkarbizitza, komunikazioa, negoziazioa eta elkartrukea dagoen heinean. Honek besteen kulturarekiko errespetua du abiapuntutzat, bai eta norberaren kulturarekiko eta bestearekiko errespetuzko ikuspegi kritikoa ere.
 - c. Espazio edo herrialde zehatz batean kultura nagusiak kultura minoritarioa desagertaraztea helburutzat duenean ematen da. Kultura nagusiak boterea hartu eta kultura minoritarioko pertsonen haien kultura alde batera uzten dutenean.
- 11. Kulturartekotasuna kudeatzeko formaziorik jaso duzu?**
- a. Bai
 - b. Ez
- 12. Profesional gisa, zure etengabeko prestakuntzan kulturartekotasunean trebatzea lehenetsiko duzu?**
- a. Bai
 - b. Ez
- 13. “Irakaslegoa kulturartekotasunean formatuta garrantzitsua da” esaldiarekin zein adostasun maila erakusten duzula esango zenuke?**
- a. Ez nago batere ados
 - b. Ez nago guztiz ados
 - c. Nahiko ados
 - d. Oso ados
 - e. Erabat ados

14. Praktiketari ibili zarene ikastetxean, kultur-aniztasuna kudeatzeko plangintzarik zegoela esango zenuke? Egotekotan, zein?

15. Kultur-aniztasuna kudeatzeko hurrengo baliabideen artean, zeintzuk antzeman dituzu praktiketari?

- a. Psikologoa
- b. Logopeda
- c. Pedagogia Terapeutikoko Espezialista
- d. Curriculum egokitzapenak
- e. Testu edo fitxa egokituak
- f. Ikus-entzunezko baliabideekin lagundutako testuak
- g. Harrera plana
- h. HIPI-a

16. Etorkezinean zure gelan kulturartekotasuna sustatzeko asmoa duzu? Nola egingo zenuke?